

## ESKOLEN ARTEKO FOROA

- *Eguna/Día*: Maiatzaren 4/4 de mayo
- *Lekua/Lugar*: Muskizko kultur Etxea
- *Partaideen harrera/Recepción de asistentes*: 9:50
- *Jardunaldiaren hasiera/Comienzo de la jornada*: 10:00
- *Jardunaldiaren bukaera/Finalización de la jornada*: 11:15

## GARAPENA

### 1. Ortzadaren aurkezpena eta ekintza testuinguruan kokatu. 5'

“Gaur, eskolen arteko foroa egiteko bildu gara. Eskolen arteko foroa EA2030eko programaren barneko ekintza bat da eta Zer da EA2030? Ezaguna egiten zaizue? [Ikasleen erantzuna sustatu](#)

Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen ingurumen hezkuntza proiektua da, eta ikastetxeek aurrera eramaten dute, gai desberdinak landuz. Iaztik, GJHen arabera aukeratzen dira gaiak. Aurten, adibidez, 7. GJHa landu duzue, energia irisgarria eta ez kutsagarria.

Zer egin duzue ikastetxean gai honen inguruan? [Ikasleen erantzuna sustatu](#)

Eta udal diagnostikoa egiteko ibilbideetan parte hartu duzue? Zer aztertu duzue ibilbide horietan?

Beno ba, Eskolen arteko foro honetan bildu gara ibilbideetan aztertu zenutenaz hitz egiteko eta erabakitzeke zer egin dezakegun gure udalerria komunitate jasagarria izan dadin. Hau da, gure KONPROMISOAK adosteko. Bestalde, Udalak udalerriri jasagarriagoa nola lor dezakeen pentsatuko dugu, eta PROPOSAMENEN zerrenda egingo dugu.

### 2. Aurkezpen dinamika. 5'

Ikusten duzuen bezala, hemen aurpegi ezagunak eta ezezagunak bildu gara beraz, gure artean ezagutzeko asmoz, bakoitzak bere izena eta jasagarritasuna edo ingurumenarekin erlazionatuta dagoen hitz bat esango du.

### 3. Hausnarketa. 15'

Konpromisoen eta proposamenen zerrendak adostu aurretik, talde-hausnarketa egingo da, jarduera testuinguruan kokatzeko. Guztion artean, udalerriri batek jasagarria izateko, energiaren aldetik, izan behar dituen ezaugarriak izendatuko ditugu

Ondoren, talde txikian, ibilbideetan eta jardunaldi teknikoan ateratako ondorioak gogoratu beharko dituzte. Fitxan idatziko dituzte eta bateratze-lana egingo da.

Orain arte esandako guztia kontuan hartuta erantzungo dute Muskiz jasangarria den ala ez.

Jasangarria izan ala ez, beti daude hobetu daitezkeen gauzak. Talde txikian Muskizko zer gauza hobetu daitezkeen baloratu beharko dute, eta fitxan idatzi.

4. KONPROMISOAK sortzeko dinamika. 20'

“Zer egin ahal dugu guk Muskiz JASANGARRIA IZATEKO?”

Talde bakoitzak gutxienez bi ekintza idatziko ditu, aurretik identifikatu dituzten gauzak hobetzeko eta Muskiz jasangarria izan dadin lortzeko.

Talde txikietan bi konpromisoak adosteko 15 minutu edukiko dituzte gehienez eta talde guztiek bukatu bezain laster, talde handian jarriko dugu amankomunean. Azken hau burutzeko beste 10 minutu behar izango ditugu.

5. PROPOSAMENAK sortzeko dinamika. 20'

“Zer egin ahal du Udalak Muskiz JASANGARRIA IZATEKO?”

Proposamenak adosteko, dinamika bera erabiliko dugu.

6. Egindako lanari buruzko aurkezpen txikia. 5'

Ikasle guztien artean, bi ordezkari aukeratuko ditugu irakasleei eskolen arteko foroan egindako lana aurkezteko. Egindako lanaren laburpena eta sortu diren konpromiso eta proposamenak.

7. Ebaluazioa. 5'

Ikasle bakoitzari ebaluazio orri bana emango diegu eta arkatza edo boligrafoarekin betetzea eskatuko diegu.

**OHARRA:** Ikasturte amaierarako buletin bat egin behar da, beraz, galderaren bat egin dakioke ikasleren bati elkarrizketa gisa.

**MATERIALA**

- ✓ Lan dokumentua
- ✓ Arkatzak edo boligrafoak eta errotulkiak
- ✓ kartulinak
- ✓ Post-it txikiak